

2096/2025 EBAZPENA, urriaren 30ekoa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Medikuntza Intentsiboko (Zainketa Intentsiboen Zerbitzua, Erdi-mailako Zainketa Intentsibo Semikritikoen Unitatea) atal sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren.

AURREKARIAK

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearen uztailaren 15eko 1407/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Medikuntza Intentsiboko (Zainketa Intentsiboen Zerbitzua, Erdi-mailako Zainketa Intentsibo Semikritikoen Unitatea) atal sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko abuztuaren 13ko EHAA 152 zk. eta 2025eko irailaren 1eko EAO 210 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko irailaren 22an amaitu zen.

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearen irailaren 29koa 1887/2025 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertze arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetza Estatu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Medikuntza Intentsiboko (Zainketa Intentsiboen Zerbitzua, Erdi-mailako Zainketa Intentsibo Semikritikoen Unitatea) atal sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)



Bigarrena.- Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Hirugarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiarri, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 30a.


Osakidetza ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA ARABA
KUDEAKETAKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN GERENCIA

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentea,

ENRIQUE MANUEL BÁREZ HERNÁNDEZ.

I. ERANSKINA

ARABAKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO MEDIKUNTZA INTENTSIBOKO
(ZAINKETA INTENTSIBOEN ZERBITZUA, ERDI-MAILAKO ZAINKETA INTENTSIBO
SEMIKRITIKOEN UNITATEA) ATAL SANITARIOKO BURUA IZENEKO LANPOSTUA

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- Fernando Fonseca San Miguel jn.

Baztertuak:

- Inor ez.

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.

II. ERANSKINA

ARABAKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO MEDIKUNTZA INTENTSIBOKO
(ZAINKETA INTENTSIBOEN ZERBITZUA, ERDI-MAILAKO ZAINKETA INTENTSIBO
SEMIKRITIKOEN UNITATEA) ATAL SANITARIOKO BURUA IZENENKO LANPOSTUA.

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua:

Titularra: Juan José TIMIRAOS FERNÁNDEZ jn.

Ordezkoa: Alejandra GIL MOLET and.

Lehenengo batzordekidea:

Titularra: María Esther CUESTA GARCÍA and.

Ordezkoa: Itziar NEVE LETE and.

Bigarren batzordekidea:

Titularra: Alberto MANZANO RAMÍREZ jn.

Ordezkoa: Antonio Oscar LUQUE LEZCANO jn.

Hirugarren batzordekidea:

Titularra: Félix ZUBIA OLASCOAGA jn.

Ordezkoa: Francisco Javier GARCÍA ALONSO jn.

Laugarren batzordekidea:

Titularra: Sebastián José IRIBARREN DIARASARRI jn.

Ordezkoa: María Victoria BOADO VARELA and.

Idazkaria:

Titularra: María Rosario MARTÍN ROMÁN and.

Ordezkoa: María Pilar SÁNCHEZ GARDUÑO and.